

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO UDALA

Alkatearen ebazpena, bere funtzioak ordeztari buruzkoa, bera ez dagoenean

Jakinarazten da Alkatezaren 59/2016 Ebazpenaren bidez hau xedatu dela:

Añanatik kanpo egongo naizenez 2016ko urriaren 3tik 16ra, egun biak barne.

Kontuan hartuta Alkatezaren ekainaren 13ko 23/2011 Ebazpenaren bidez Ascensión Alonso Iturralde izendatu zela Añanako Udaleko alkateorde.

Ikusirik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 23.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 44., 47. eta 48. artikuluetan ezarritakoa, honen bidez EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Alkateorde Ascensión Alonso Iturralde andrea eskuordetzea Añanako Udaleko alkate lehendakari gisa dagozkidan eskumenetarako, nire eginkizun guztietan ordezkari nizan kanpoan nagoen bitartean, 2016ko urriaren 3tik 16ra, egun biak barne.

Bigarrena. Ebazpen honek 2016ko urriaren 3tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, eta haren berri ematea interesdunari, bai eta udalbatzari ere, egingo duen hurrengo ohiko bilkuran.

Gesaltza Añana, 2016ko irailaren 30a

Alkate lehendakaria

JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ